

Xabier Etxaniz Erle

EHUKO IRAKASLEA

Euskal herritarrak eroso gaude

Kulturaz eta arteaz eginiko elkarrizketa interesgarri batean (*Berría*, irailak 1) Erramun Landak botatako esaldia da goiko hori. “Euskal herritarrak eroso gaude. Oso eroso” zioen Landak. Bera, batik bat arteaz ari zen elkarrizketa horretan, baina sumoa dut kultur –eta beste esparru askotako– arlo guztietara zabal daitekeela ideia hori.

Euskarazko liburugintzan, esaterako, aspaldi dirulaguntza sistema bat martxa jarri zen arlo horretako sorkuntza eta industria bultzatzeko. Gabeziak zeuden eta euskaraz argitaratzen ziren/diren liburu guztien ale batzuk erosten ditu Jaurralitzak liburutegietan eta eskoletan banatzeko. Liburuaren prezioa baino dexente merkeago erosi arren, erosketa hori laguntza ederra da argitaletxeentzat. Kontua da egoera aldatu egin dela, eta gainera, erosketa horren harira pikareska ere sortu dela argitaletxe batzuetan –prezio garestiak jarri erosketa instituzionalaren bidez kosteak ordaintzeko–.

Gaur egun euskarazko liburugintzan –eta ez naiz kultur arloko beste esparruetaz ariko– gabezia eta behar handiak daude, baina zenbait arlotan merkatua asetzen ari da, eta agian gehiegi argitaratzen –gure antzeko beste herrialdeen halako bost edo sei aldiz gehiago, esaterako–. Haur eta gazte literaturan, adibidez, irakurtzen duten haurrentzako narra-



ALEX LARRETXI

tiba obra asko daude, eta agian pittin bat gutxiago argitaratu beharko litzateke; haur txikientzako albumetan, aldiz, larrugorritan gaude. Euskal Herrian puntako irudigileak ditugu; irudigile horiek, baina, ezin dute libururik sortu euskaraz, ia-ia ez dute beren lanak euskaraz ikusteko aukerarik. Laguntzek, berriz, egoera hau konpondu beharrean areagotzen dute.

Hemengo lanak kanpoan ezagutarazteko eginiko proiektuekin ere herren ari gara. Liburu zehatz bati edo beste bati ematen zaio laguntza kanpoan argitaratzeko, baina agian hori egin baino lehen –edo horrekin batera– hemengo liburuen berri eman beharko litzateke, euskal literaturaren historiak, azterketak, saioak... ezagutarazi.

Izan ere, urtero-urtero Torrealdaik ematen dizkigun datuok ikusita egoera onean omen gaudela ikus dezakegu, gero eta liburu gehiago argitaratu... baina argitaletxeetan, eta gizarteko esparru batzuetan, gero eta gehiago hitz egiten da gure literaturaren –kulturaren– krisiaz. Oso gutxi saltzen da eta dirudienez gero eta gutxiago irakurri. Susmoa dut eztabaida batzuk ere –Euskadi sarien aitzakiarekin hasitako hura, esaterako– ez direla ongi itxi. Eta, benetan larria iruditzen zait gure kulturaren egoera horrelakoa izanik euskal jendearen aldetik dagoen lasaitze hau, eroso sentitze hau. ■

« Susmoa dut eztabaida batzuk ere ez direla ongi itxi. Eta, benetan larria iruditzen zait kulturaren egoera horrelakoa izanik euskal jendearen aldetik dagoen lasaitze hau, eroso sentitze hau »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Behar lukeena, ez-ohikoa delarik ia-ia anormalizat jotzen dugu. Ardura publikotan dabilenak bere

horretatik lekutzea normala beharko luke izan. Klubetako lehendakari zenbait ezagutu dut bere jardueran negarti, agintaldia joan eta zahardadea etorri eta hala ere palkuan itsatsita bere horretan jarraiki. Entrenatzaileen artean ere beste hainbeste. Zapi zuriak dantzan eta aurkako oihuak eta biraoak entzun eta hala ere segi kanporatua izan arte. Politikan errealitate berdintsua. Porrotek ez baldin badituzte berekin lekutik eramaten, hor jarraitzen dute kosta ahala kosta. Ez-normala estatistikak normali-

Normala

zaturik. Bere zereginean asmatu ez eta eraiki beharrean ari eta ari zultatzen dabilenarekin, kontuz, oharterako guztia zuloan emango baitu. Adibideak, han eta hemen ez ditugu falta. Josu Jonek badoala esan du, eta badirudi esandakoa betetzeko asmoa duela. Ez omen dago gustura EAJn dagoen barne giroarekin. Hori da bertsio ofizialak dioena. Eta nik bertsio ofizialak nekez irensten ditudanez, beste zerbait badagoela uste dut, aspertzeara eragin dion zerbaitek eraman duela bere erabakia hartzea alegia. Auzotik txalo etxean isil. Auzoa lagun eta etxea... Ez du lanposturik faltako, ez du INE-Men beharrik izango. Horrek dio askatasuna ematen. ■